

EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 37.000 EUROTIK GORAKO LAGUNTZAREKIN BABESTU DUTE UNICEF SIRIAKO HAURREN ALDE EGITEN ARI DEN KANPAINA

- **EROSKIren bezeroek elkartasuna erakutsi diote urriko eta urtarrileko elkartasun ekimenetan**
- **Ateratako dirua hurrei laguntzeko izango da, kausa hori hautatu baitzuten 3.000 bazkide-bezero on line egindako inkesta batean**

Elorrio, 2020ko otsailaren 17a.- [EROSKI](#)k 37.000 euro baino gehiago bildu ditu [UNICEF](#) erakundearentzat (Nazio Batuek hurrei laguntzeko duen funtsa). Hori izan da bezeroen ekarpena urriko eta urtarrileko elkartasun ekimenetan. Ateratako dirua UNICEF Sirian egiten ari den kanpainari laguntzeko izango da, hango haurren nutrizio arloko beharrianak estaltzen laguntzeko.

"Aurten ere, bezeroak gure alde irauli dira lehenbiziko egunetatik, eta elkartasun handia erakutsi digute. Eskertzekoa da gure ekimenen alde erakutsi duten eskuzabaltasuna eta babesa. Guretzat oso garrantzitsua da zailtasun gogorrek dituztenei bizi kalitatea hobetzen laguntzea. Ekarpenari esker, beste behin batu ditugu indarrak gauza handiak lortzeko", esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Hurrei laguntzea hautatu zuten EROSKIren 3.000 bazkide-bezero inguruk on line egindako inkesta batean udazken honetan www.eroski.es webgunearen bidez; inkesta horretan, hautatzeko zituzten beste zenbait elkartasun ekimen.

"UNICEFen Espainiako Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie enpresa aliatuei, eta, kasu honetan, EROSKIri, haurrik zaurgarrienei laguntza ematen ari delako joan deneko 15 urtean. "Sirian, gatazka piztu zela ia bederatzi urte joan diren honetan, 5 urtetik beherako hiru milioi hurrek baino gehiagok laguntza behar dute elikadura aldetik, eta horietatik ia 20.000 desnutrizio larria sufritzen ari dira. Gainera, haurdunaldian nahiz edoskialdian diren emakumeen %20k desnutrizio moderatua izaten dute", azaldu du Isidro Elezgarai, UNICEFen Euskal Autonomia Erkidegoko Batzordeko presidente eta UNICEFen Espainiako Batzordeko Patronatuko kide denak.

EROSKIri buruz

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Kooperatibaren helburuetariko bat da gizartea enpresaren jarduerarekin eraldatzea. Kontsumo kooperatiba den aldetik, proiektu kolektiboa da EROSKI, kontsumitzaileari eta gizarteari emana. Horregatik, lau eremutan lantzen du bere konpromiso soziala, eta eremu horiek erakusten dute zein den haren gizarte erantzukizuna: elikadura osasungarriaren sustapena, kontsumitzailearentzako informazioa, ingurumenaren iraunkortasuna eta elkartasuna.

UNICEFi buruz

UNICEF munduko lurralderik zailenetan jarduten da behar handiena duten haurrei laguntzen. 190 herrialdetan eta lurraldetan, haur bakoitzaren alde dihardu, nonahi eta egunero, guztientzako mundu hobe bat eraikitzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)